

BERRI MOTZAK

Gorputzeko organoak lekuz kanpo, 118 urte bete ditu.

Le Thi Co emakume vietnamdarrak 118 urte ditu. Kontua da Le Thi Cok gorputzeko organoak erabat leku aldrebesetan edukita bete dituela hainbeste urte. Emakume vietnamdar honek bihotza bere leku naturaletik kanpora dauka. Gibela ezkerrean, eta barea (bazo), eskuinaldean. Akaso horixe izango da sekretua.!

Lortu behar dituzun erantzunak:

1. Nongoa da emakumea?
2. Zenbat urte ditu?
3. Zer dauka berezia?

Haize kolpe aprobetxatu eta ihes egin

Izugarrizko txikizioak egin ditu George madarikatu horrek. Irailaren 21 eta 22an Puerto Ricon 50 presok ihes egin zuten kartzeletatik haize kolpea aprobetxatuta. Ihes egin zuten 25 atxilotzea lortu dute eta preso sartu dituzte berriz ere.

Lortu behar dituzun erantzunak:

1. Nola du izana haizeak?
2. Zer gertatu da?
3. Noiz?
4. Non?
5. Zenbat atxilotu dute?

Auto istripu Toledon

Sei lagun hil ziren atzo goizean Esquiviasen (Toledo) anbulantzia batek eta auto batek elkar talka egin ondoren. Euriagatik, anbulantziak irrist egin zuen eta auto bat bete-betean harrapatu zuen. Bi ibilgailuak irauli (volcar) egin ziren. Autoko pertsona bat berehala hil zen, anbulantziako lau gaixorekin batera. Beste gaixo bat ospitalean hil zen. Anbulantziako gidaria ondo dago, baina beste hiru lagun larri daude.

Lortu behar dituzun erantzunak:

1. Zer gertatu da?
2. Non gertatu da?
3. Noiz gertatu da?
4. Zergatik gertatu da?

Erantzunak

Gorputzeko organoak lekuz kanpo izan arren, 118 urte

1. Nongoa da emakumea?

VIETNAM-GOA

2. Zenbat urte ditu?

118 URTE

3. Zer dauka berezia?

ORGANOAK BERE LEKU NATURELATIK KANPORA DITU

Haize erantsia aprobeztatu eta ihes egin

1. Nola du izena haizeteak?

GEORGE

2. Zer gertatu da?

50 PRESOK IHES EGIN DUTE KARTZELETATIK

3. Noiz?

IRAILAREN 21 eta 22an

4. Non?

PUERTO RICON

5. Zenbat atxilotu dute?

25

Auto istripu Toledon

1. Zer gertatu da?

6 LAGUN HIL DIRA

2. Non gertatu da?

TOLEDON

3. Noiz gertatu da?

1998ko IRAILAREN 28AN, GOIZEAN

4. Zergatik gertatu da?

ANBULANTZIAK IRRIST EGIN ETA BESTE AUTO BATEN KONTRA JO ZUEN